

Direction de la communication,  
du dialogue citoyen et de l'attractivité territoriale  
05 59 46 60 40  
communication@bayonne.fr

14.05.2024

## PRENTSA OHARRA

### ZIGORREN ERAKUSKETA BERRIA BAIONAN

«Malda Bizi / Vivre la pente»

2024ko ekainaren 16a arte



© Zigor, *Malda Bizi*

Erakusketa honen jatorrian, izen bereko obra bat: « Vivre la pente », 2023an Cairn edizioetan argitaratua. Euskal Herriko paisaia maldatsuak zuri-beltzean irudikatzen dituen argazki bilduma honetan, artistak aurre egiten dio Gizakiaren berezko dualtasunari: « bi malda daude gizakiaren bizitzan, aurrez aurre daudenak eta lautadara begira daudenak », Zigor. 2024ko maiatzaren 3tik ekainaren 16ra bisitaria mendi magalera edo itsaslabar indartsuen ertzera eramaten duten 62 lan, marko argazki, dibond eta estampa monumental aurkezten dira Didamen, erakusketa ibiltariaren baitan. Irudi horiek Zigorrek sortutako marrazki, olerki eta testuekin lagunduak izanen dira.

Euskal Hirigune Elkargoko ordezkaritza batek Zigor-en tailerrean egindako bisita baten kariatara, erakusketa ibiltari baten ideiak argia ikusten du. Artistaren lana lurralde osoan distiraraztea da kontua. Didam, Baionako arte garaikideko gunea, Lapurdin ibilaldia hasteko ghautatua den bitartean, Irisarriko Ondare Hezkuntzako Departamenduko Zentroak Nafarroa behean harrera eginen dio udan, erakusketa urte hondarrean Xiberoko Mauleko Agerria eremuan aurkeztua izan aitzin. Gune bakoitzak eszenografia bat proposatzen du eta, beraz, artistaren ikuspegi ezberdin bat, nahiz eta osagarria izan.

Vivre la pente obran, Zigorrek bere herriaren ikuspegi intimo eta kontenplatiboa ematen du. Bere jarrera filosofikoa, lehenik, bere argazkilari begiaren bidez transkribatua da. Argiari buruzko lan jakintsu batek, zuri-beltzaren esplotazioaren bidez, irudiak irudikatzen dituen emozioak areagotzen ditu.

**«Nire argazkietan zuri-beltza iluna eta kontrastea da narrazioaren forma dramatiko horrek beti hunkitu nauelako. Zaila egiten zait koloreari kolorea ezartzea. Zuri-beltzak**

***koloreak ezkututzen duena erraten uzten dit. Koloreak berrezagutzen laguntzen gaitu, eta zuri-beltzak, agian, ezagutzen ».* Zigor**

Poetaren luma ere bada argazkilariaren lana sublimatzera eta elikatzerara datorrena. Elkarrekin, erakusketa sentikor eta hunkigarri baten osotasuna osatzen dute, non artistak bere buruaz eta bere galdera filosofikoez zerbait ematen digun Izadiaren ahalmenaren aitzinean.


**Alexia Larrartek proposatutako erakusketarako komisarioak marrazkiz, olerkiz eta testuz lagundutako irudiz egindako bidaiaria marrazten du, Zigorrek mendian egindako kontenplazio-ibilaldietan sortutakoa. Murgiltze bat, ez geografikoa, Euskal Herrian, elementu naturaletan eta norberaren bihotzean ainguratua bada ere.**

## Zigor

1947an Aretxabaletan (Gipuzkoa) sortutako eskultore margolari eta olerkaria da. Bere poesia liburuxkak 1973az geroztik argitaratuak dira. Munduan zehar ibiltzen da 1982ra arte, kazetari argazkilari gisa aldizkari handientzat eta Capa press agentziarentzat. Horrela bidaiatzen du, batez ere Saharako basamortuan, eta bizi esperientzia horiek ehun arruntak eskaintzen dizkiote : lurra eta hizkuntza. Entzute sakon horrek bere begirada eta klixeeetan eragiten du, intuizioa eta distiraren artean. Kazetari gisa aritu ondoren, Zigorrek ez du gehiago bere leica hunkitzen hainbat urtez.

1983an, eskulturari erabat ematea erabaki zuen eta azkar segitu zuen euskal eskultore garaikide handien ildotik. Zigorrek naturan du inspirazioa, antolatzen den kaos baten jatorrizko mugimendua berritzen baitu. 2010eko hamarkadan, kontenplazio tresna hori berriz eskutan hartzeko beharra sentitzen du, oraingo honetan osoki artistikoki hartua den xede batekin. Hemen ez dago bere ustez distraigarria den kolorerik

**Zigorrentzat, eskulturek, argazkiek, pinturak eta poemek oihartzuna dute, eta sustraiek lotutako lur eta gizateria baten ahalmen arkaiko eta unibertetsala sentitzen dute.**



## Tiki eta handientzako bitartekaritza egitarau bat

Didamek urte osoan zehar, publiko anitzei zuzenduriko hitz ordu anitz eskaintzen ditu, gehienak dohainik : familia tailerrak, bisita komentatuak frantsesez edo euskaraz, mintzaldiak, gauak, kontzertuak...erakusketarekin eta artistarekin lotuak.

### ZIGORREN MANERAN - « ZUEN MENDIA MARRAZ EZAZUE »

Mendiak bihitzean dituzu? Eman askatasuna zure irudimenari eta marraztu zure mendirik ederrena Didamentzat. Gure taldeek aukeratutako marrazkiaren egileari « Vivre la pente » liburuaren edizioa eskainiko zaio. Emaiza bukaerako asteburuan emana izanen da. Euskarri digitala 2024/06/12 baino lehen posta elektronikoz bidali behar da : mediation.didam@bayonne.fr Proposamen honetan parte hartuz, irudi-eskubideen baimena izenpetuko duzu Baionako Herriko Etxeko euskarri digitalean zabaltzea baimentzen duena (webgune & Didam eta sare sozialak) eta Didam erakustekiko espazioan.

## Praktikan

**2024ko ekainaren 16a arte ikusgai. Astartetik igandera idekia 13:00etatik 18:30era – baita besta egunetan. Urririk.**

DIDAM, arte garaikide gunea / Lesseps kaia 6 Baiona / didam.bayonne.fr

Euskal Hirigune Elkargoa, Baonako Herriko Etxea eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluarekin elkarlanean, erakusketa ibiltaria aurkezten du:

> **2024ko maiatzaren 3tik ekainaren 16ra Didam, arte garaikide espazioan – Baiona,**

> **2024ko uztailaren 6tik urriaren 12ra Ospitalea, Ondare Hezkuntzarako**

**Departamendu Zentroa – Irisarri,**

> **2024ko azaroaren 8tik 2025eko urtarrilaren 5era Agerria eremuan – Maule.**

